


altza

Futbol zelaia berritzen

I arratxon kokatutako futbol zelaia, Herrera-ko futbol zelaia bezala ezagutzen dena, itxita egongo da zenbait hilabete, bertan egingo diren berrikuntzak direla eta. Aspaldidanik zebiltzan Sporting, Roteta eta beste zenbait kirol talde, futbol zelai honen egoera Udaltxean salatzen eta azkenik, luzaro itxaron ondoren izan bada ere, iritsi da konponketa.

Berrikuntza lanak duela aste batzuk hasi ziren eta lanean aurrera egin ahala, futbol zelaiaren egoera aurrikusitakoa baino okerragoa zela konturatu dira obra arduradunak eta udal teknikoak. Hori dela eta Donostiako Udalak 99 milioi inbertitu beharko ditu bertan. Belar artifiziala jarriko da eta tribunak, aldagelak, dutxak eta gainerako azpiegitura berriitu egingo da. Bien bitartean, Altza eta Herrera inguruko futbol taldeek entrenamendu leku berriak bilatu beharko dituzte. Dena den, pena merezi duela uste dugu.

LARRAITZ GARMENDIA (TFNOA.: 391267)
ARGAZKIA: ROXALI FERNANDEZ



99 milioi eman-
go ditu udalak
futbol zelaia
berritzeko.
Lanak hasi
ondoren, kon-
pondu beharre-
koa aurrikusita-
koa baino
askoz ere
gehiago zela
ohartu ziren.

herrera

Herri-Pe, oportretan lanean

Herri-Pe Auzo Elkar-
tea lanpetuta dabil
uda parte honetan,
urtean zehar burututako
ekintza guztien balorazio-
ak egiten. Horrekin bate-
ra, datorren ikasturteari
begira aztertu eta garatu
beharreko hainbat gai fin-
katuta dituzte dagoeneko.

Peatonalizazio prozesua
da 1995-96 ikasturterako
gai nagusia. Herrera bide
gurutzez beteta dagoen

auzoa dela kontutan iza-
nik, oinezkoek duten ga-
rrantzia aztertu eta be-
raientzako gune eta bideak
eraikitzeko azterketa pro-
zesuari ekin nahi diote,
Herrerarako Udalak egin
zuen Plan Bereziak dioena
aztertu eta auzokideen
nahiak kontutan izanik.

Badago baita ere ingu-
rugiro eta auzoko kirola-
rekin zer ikusia duen
beste zenbait gai: kirolgu-

nearen proiektua, auzoki-
deek herri-kiroletarako
eskatzen duten lekua...

Auzategin urtero urte-
ro antolatzen diren kultur
ekintza, ikastaro, eta abar
ere ari dira antolatzen.
Gogoratu bertan ematen
dela helduentzako irakas-
kuntza (EPA) eta gazte-
entzako beste zenbait
ikastaro ere antolatzen
direla: pintura, esku-
lanak, musika...



**EXPOXI PINTURAK
ESTALTZE LANAK**

Tfnoa.: 55 79 12 ASTIGARRAGA



- Elekrika Blend Sistema
- Makilaia Iraunkorra
- Azkazal Labratuak
- Berile Tindaketa...

Zedro plaza 2 • DONOSTIA • Tfno:
Nagusia 27 • LASARTE • Tfno: